

Ana Castilla Molin

*Elgoibar,
Gipuzkoa
(1958)*



Aurkibidea

Biografia



Zintak

EGB-143

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Elgoibarren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2023-07-20

- **Iraupena:** 38 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Ama Malagakoa eta aita Burgoskoa

- **Erref:** EGB-143/003
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:02:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita Burgosetik etorri zen, San Pedro lantegira lanera. Ama, berriz, Malagakoa zen eta Arrillaga ospitalean lan egin zuen. Elgoibarren ezagutu zuten elkar eta San Pedro lantegiak egindako etxeetan bizi izan ziren.

2. Euskara hautazko gisa Magisteritzan

- **Erref:** EGB-143/004
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:02:35. **Bukatu:** 00:04:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Euskararekin izan zuen lehen harremana Gasteizen izan zen, Magisteritza ikastera joan zenean, euskara hautazko gisa eskaintzen zuten eta.

3. 1979an hasi zen ofizialki irakaskuntza publikoan

- **Erref:** EGB-143/008
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:05:49. **Bukatu:** 00:08:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Magisteritza bukatu eta urtebetez langabezian egon zen. Aita Agirre ikastetxetik ordezkapen bat egiteko eskatu zioten hasieran, baina ofizialki 1979an hasi zen irakaskuntza publikoan lanean. Plaza lortzeko prozesuan ez zen euskararen ezagutza eskatzen, nahiz eta izendapenak euskaraz eta gaztelaniaz egon. Irakasle gehienak kanpotik etorriak ziren. Eskolan dena gaztelaniaz ematen zuten.

4. 1980tik Elgoibarko eskola publikoan; Urasandira aldaketa

- **Erref:** EGB-143/010
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:08:33. **Bukatu:** 00:10:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

1979an hasi zen irakaskuntza publikoan lanean. Hiruhileko bakoitza eskola desberdin baten eman zuen. Eskola guztiak gaztelaniaz eman zituen. 1980tik aurrera Elgoibarko eskola publikoan lan egin zuen. Aita Agirre eskolaren eraikina ez zegoen baldintza onetan eta urte horretan Urasandiko eraikin berrira pasa ziren. Irakasleek eta gurasoek antolatu zuten ikastetxea.

5. Virginia Bollain, euskara irakasle eskola publikoan

- **Erref:** EGB-143/011
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:10:19. **Bukatu:** 00:11:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Virginia Bollain izan zen Urasandiko eskola publikoko euskara irakaslea zenbait urtez, baina ez daki ziur zer urtetan izango zen. Ziurrenik "idoneo" gisa sartuko zela iruditzen zaio. Irakasle "idoneo"ak.

6. 80ko hamarkadan aldaketa eskola publikoan

- **Erref:** EGB-143/013
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:13:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Hezkuntzako hizkuntza-ereduak 1983 inguruan ezarri zirela eta garai horretan hasi zirela eskola publikoari buelta ematen dio. Ez zen erraza izan "eskola nazionala" izendapena desagerraraztea.

7. Matrikulazioa igotzeko, zerbitzuak eskaini behar

- **Erref:** EGB-143/014
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:13:22. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Bi eskola publikoek gain, eskola pribatua (Pilar) eta ikastola zeuden Elgoibarren. Eskola publikoko matrikulazioek behera egin zutenean, beste ikastetxeek eskaintzen zituzten zerbitzuak eskaini beharra ikusi zuten. Bi urtekoen gela jarri zuten martxan eta jangela-zerbitzua ere bai, baina zeuzkaten baliabideekin moldatu behar izan zuten hasieran.

Transkripzioa

- Hasieran, bueno, A eredu...
- Bai, geu giñen A eredu. Bai.
- Eta zelan jua zan gero hori...?
- Gero, nik Imanoli aurreko egunian kontaktzen nion. Elgoibar da herri txiki bat. Eta, orduan, herri txiki bat eta lau eskola martxan: pribatua, ikastola eta bi publika. Ta orduan ez zegoen umerik hornitzeko eskola guztiak. Orduan, geuk ikusten genuen denboraren poderioz gure matrikula jeisten ari zela. Alde batetik geneukan pribatua eta beste aldetikan geneukan ikastola. Orduan, heltzen zen matrikula garaia eta geure kopurua gero eta txikiagoa zen. Orduan eskolan zegoen erronka bat. Geuk eskola aurrera eramatea nahi genuen eta ikusten genuen etorkizuna nun zegoen. Orduan beste eskolek gurasoei eskeintzen zituzten baliabideak geuk ere eskeini behar genituela. Orduan geuk... hasi giñen... pues, lehehenengo, pues hori: haurtzaindegia. Geuk haurtzaindegia ez genuen, 3 urtetik gora zetozen gure ikasleak. Orduan zer pentsatu genuen? Departamentuari eskatu genion laguntza eta jarri genuen martxan 2 urteko gela; gutxienez bi urtetik gora hartzea posible genuen ikasleak. Eta, klaro, departamentuak zer esan zigun: ez, martxan jartzea posible duzue, zuek erabiltzen badituzue dituzuen baliabideak. Eta, klaro, geuk honela egin genuen. Pentsatu genuen aber zein irakasle izan zitekeen aproposena hori egiteko eta gero beste aldetikan ere bai eguardian gelditu behar bagiñen ikasleekin zein irakasle geneukan ordurik edo... posible geneukan gelditzea ikasle hoiekin emateko bazkaria. Eta honela lortu genuen, zeren eta 2 urtetik gora matrikula ofiziala izatea etorri zen askoz beranduago. Baiña urte... urtea, konkretuki, ere ez.

8. Urasandiko eskola A eredutik B eredura aldatzeko prozesua

- **Erref:** EGB-143/015
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:15:50. **Bukatu:** 00:18:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Euskara indarra hartzen ari zela ikustean, Urasandiko eskola publikoak A eredutik B eredura pasatzeko urratsa ematea erabaki zuen. Horrek euskara zekiten irakasle berriak kontratatzea eta euskararik ez zekitenak beste nonbaitera bideratu beharra suposatzen zuen. Eskolan geratu nahi zuten

irakasleek euskara ikasi beharra zuten eta horrela hasi ziren zenbait irakasle herriko euskaltegiara joaten. Prozesu gogorra izan zen.

Transkripzioa

- Ta gero, horretaz aparte, pues, hori, ikusten genuen zer indarra hartzen ari zen euskera eta ikusterakoan zer indarra hartzen ari zen, eskolak berak beraren planteamentua egin behar izan zuen. Orduan, A eredutik lehenengo pausua izan zen B eredia eskatzia. Horrek suposatzen zuen plantillatikan hainbat plaza perfilatzen zirela euskera... Orduan, horrek suposatzen zuen zeuden irakasleen artean beste toki batera jun beharko zirela. Hori ez da inoren gustokoa, baina, klaro, mahai gainean jarri behar dituzu gauza guztiak. Aurrera jarraitzea nahi badegu, gure aldetikan ere jarri behar degu. Orduan, hasi giñen hortikan. Klaro, geundenon artean ere euskera ez genuen menperatzen. Eta menperatzen bazendun eta ez bazeneukan titulorikan ere ezingo zenuen aurrera jarraitzea. Orduan, geure aldetikan ere jarri behar genuen. Ez bakarrik eman behar dizkiguten baliabideak ez zen asuntua, baiziki eta geuk hortxe jarraitzea nahi bagendun, geure aldetikan ere egin behar genuen. Orduan, klaro, bakoitzak pentsatzun zun: "Bueno nik nere etorkizuna nun kokatu nahi dudan. Hemen Elgoibarren? Pues, badakit zer egin behar dudan. Hasi behar dut nire aldetikan euskera klaseak hartzen". Orduan, honela hasi giñen. Hemen Elgoibarren zeuden bi euskaltegi, pues orduan klaseak bukatu ondoren, orduan hasi giñen euskaltegiara etortzen. Baiña, klaro, hori zen bakoitzaren erabakia, bakoitzak zer nahi genuen geuretzat. Eta, orduan, honela jun giñen pues, hori, eskolaren eredia aldatzen, baiña suposatzen zuen eskolan beherakada handi-handia eta hortikan, esaten den bezala, "como el ave Fénix", heltzen zara eta gero, pues, hori, aber ze planteamentu egiten dituzun aurrera jarraitzeko.

- Irakasle euskaldunik batere ez zegoen?

- Gero A eredutikan B eredura pasatzerakoan ya departamantuan segun eta zenbat ikasle zeuden, hainbat irakasle euskerakoak izan behar ziren. Orduan, hortikan harrez geroztik ya hasi ziren euskera zekiten irakasleok etortzen. Ba B ereduak suposatzen zuela, pues, hori, gizarte klasea, matematika klasea, natur klaseak eta horrelako klaseak euskeraz izatea. Orduan irakasle hoiek izan behar zuten perfil hori klase hoiek euskeraz emateko.

9. Euskara ikasteko prozesua: euskaltegiak, ikastaroak

- **Erref:** EGB-143/017
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:19:08. **Bukatu:** 00:20:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Euskara ikasteko prozesua. Gogoan du hasieran ikastolara joaten zirela senarra eta, arratsaldeetan, euskara-eskolak jasotzera. Gero Udal euskaltegian ibili zen. Bi ikasturtetan liberatuta egon zen, Iralen euskara ikasteko. Maizpide barnetegira era joan zen pare bat urtez eta UNEDen ere egin zuen ikastaroa larunbatetan.

10. Eskola publikoaren euskalduntzea: irakasleak, eredu-aldaketa

- **Erref:** EGB-143/019
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:21:50. **Bukatu:** 00:24:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Urasandiko eskola publikoko irakasle batzuek leku-aldaketa eskatu zuten eta alde egin zuten. Beste zenbaitek euskaraz ikastea erabaki zuten. Herriko eskola publikoetako zenbait irakasle elkarrekin joaten ziren euskara ikastera. Eskola publiko guztietan antzekoa izan zen euskalduntze-prozesua.

11. Euskara zekiten ikasle gutxi eskola publikoan

- **Erref:** EGB-143/023
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:29:05. **Bukatu:** 00:30:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Urasandiko eskolako ikasleak herrikoak eta Sigma auzokoak izan ohi ziren. Ikasle gutxik zekiten euskaraz. Pedro Muguruza ikastetxeak, berriz, herrikoak eta baserrietakoak izan ohi ziren eta han euskaldun gehiago egoten zen. Euskara zekiten ikasleak ikastolara joaten ziren.

12. Eskola publikoaren euskalduntzea: prozesu gogorra

- **Erref:** EGB-143/025
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:30:30. **Bukatu:** 00:32:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskola publikoaren euskalduntze-prozesuaz. Urte gazi-gozaok izan ziren. Gazteak ziren eta gauzak aurrera ateratzeko gogoia zuten, baina erronka handia zen. Euren lanpostua zegoen jokoan eta eztabaidak sortzen ziren beraien artean.

13. Euskara ikasteko prozesua: buruaren mekanismoa

- **Erref:** EGB-143/026
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:32:07. **Bukatu:** 00:33:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Euskara ikasteko prozesua ez da erraza eta ez da beti norberak nahi duen bezala joaten. Hasieran gaztelaniatik euskararako itzulpena egiten du buruak; prozesu hori azkartzea eta automatizatzea lortu behar da. Harro sentitzen da euskara ikasi izanaz, baina argi utzi nahi du bi urtez liberatuta egoteak asko lagundu ziola.

14. Euskara transmititu nahia

- **Erref:** EGB-143/027
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:33:51. **Bukatu:** 00:35:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Bere adineko lagunekin gaztelaniaz egiten du, euskaraz ez dakitelako, baina bestela inguruko jendearekin euskaraz egiten du eta ezezagunei ere lehen hitza euskaraz egiten die. Berak esfortzu bat egin behar izan zuen ikasteko eta, horregatik, dakiena transmititu nahi du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com